

Elbira Zipitria Irastorza

(Elbira Zipitria Irastorza)

Abasolo Gallastegi, Resu; López de Muniain Martín de
Balmaseda, Juana
Kurtzebarri BHI. Santa Kurtz, 19. 20550 Aretxabaleta

BIBLID [1136-6834 (2006), 35; 271-285]

Jaso: 15.10.04
Onartu: 28.10.05

Poliedroak adina alde dituen emakume euskalduna da Elbira Zipitria. Ideia iraultzaileak izan zituen, eta klase kontzientzia handikoa zen. Ikastolaren hazia, eta euskal eskolaren gerra aurreko eta osteko mugimenduaren lokarria. Lan pedagogikoan, Europara zabalik zituen begiak: Euskara, hizkuntzak, matematika eta ingurunea zituen oinarri eta lantzeko prozedura argi honetan sinetsi egiten zuen: irakaslea gidari, aniztasuna oinarri eta logika lan tresna. Gerraren ondoren, frankismoaren urte ilunetan, muturreraino eraman zituen bere iraultzak: euskararen aldekoa, irakaskuntzaren berrikuntzarena, euskal eskolarena...

Giltza-Hitzak: Elvira Zipitria. Euskal eskola. Emakume. Euskara. Hizkuntzak. Logika. Ingurunea. Irakaslea. Aniztasuna. Berrikuntza pedagogikoa. Abestiak.

Elbira Zipitria es una mujer vasca que posee tantas caras como un poliedro. Tuvo ideas revolucionarias y una gran conciencia de clase. Semilla de las ikastolas, y vínculo de unión entre la escuela vasca de la preguerra y el movimiento de la posguerra. En el trabajo pedagógico, tenía abiertos los ojos hacia Europa: la lengua vasca, las lenguas, la matemática y el entorno constituían sus cimientos, y creía en un procedimiento de trabajo claro: el profesor como guía, el pluralismo como base y la lógica como útil de trabajo. Tras la guerra, en los años sombríos del franquismo, llevó sus revoluciones al extremo: lucha en favor del euskara, renovación de la enseñanza, escuela vasca...

Palabras Clave: Elvira Zipitria. Escuela vasca. Mujer. Euskara. Lenguas. Lógica. Entorno. Profesora. Pluralismo. Innovación pedagógica. Canciones.

Elbira Zipitria est une femme basque qui possède autant de visages qu'un polyèdre. Elle a eu des idées révolutionnaires et une grande conscience de classe. Graine des ikastolas, et trait d'union entre l'école basque d'avant-guerre et le mouvement de l'après-guerre. Dans le travail pédagogique, son regard était rivé vers l'Europe: la langue basque, les langues, les mathématiques et l'environnement constituaient sa base, et elle croyait en un procédé de travail clair: le professeur comme guide, le pluralisme comme base et la logique comme outil de travail. Après la guerre, dans les années sombres du franquisme, elle mena ses révolutions à l'extrême: lutte en faveur de l'euskara, rénovation de l'enseignement, écoles basques...

Mots Clés: Elvira Zipitria. Ecole basque. Femme. Euskara. Langues. Logique. Environnement. Professeur. Pluralisme. Innovation pédagogique. Chansons.



1. IZAERA ETA IRUDIA

Elbira Zipitria Irastorza, 1906ko maiatzaren 28an jaio zen Zumaiako "Torrea" izeneko zimentu olan. Elbira Justa izenarekin bataiatu zuten neskatoa. Gutxi esan daiteke bere familiaz. Gai hau ez baitzuen inorekin konpartitzen. Elbira oso erreserbatua zen. Jendearekin zeuzkan harremanetan ez zituen aipatzen bere barneko sentimenduak, erlazio afektiboak...

Gurasoak gazte hil zitzaizkion. Diputazioko langilea zen Gregorio alkainekin bizi zen errentan, oso lehengusu maitea... Hala ere, etxe berean bizi arren ez zuten gune bera osatzen. Jatorduak banaka egiten zituzten. Neskatxa bat zuen etxean: Igini, Etxalarkoa.

Elbira, kristau zintzoa eta fededuna. Igandero eta jaietan Santa Maria Eleizan euskerazko elizkisuunetan parte hartzen zuen. Lagun eta ezagunen iritziz emakume sendoa zen, karakter gogorrekoa eta sentibera, sibarita, Oso ibiltari ona, mendizalea; Orhi mendira igandero abiatzen zen Donostian bizi izanda ere, bere kaiku eta txapelarekin jantzita. Pirineoak ere atsegin zituen. Ekologista zen. Basaliliak izaten zituen beti bere etxeko kutxa gainean. Urgulleko bidean hartutakoak.

1936ko gerra hasi zenean, beldurra sentitu zuen, euskeraz erakustez gain politikan oso sartua zegoenez lehenengo Askain-era (Frantziako Euskal Herrira) alde egin zuen, gero Ziburura abiatu zen eta azkenean Sarara. Hemen, Antonio Maria Labaien eta Pilar Sansinenearen etxean bizi zen Jose Migel Barandiaranen etxetik hurbil elkarrekin asko ikasteko. Frantsesera oso ondo ezagutzen zuen. Italianoa ere irakurtzen zuen. Pedagogia aldizkariak eta liburuak frantsesak ziren; denak enkuadernatuak zituen. Gerra garaian asko jasan zuen. Saran irratia entzun eta negar eta negar egiten omen zuen. Triste zegoenean bera izateari ekiten zion. Hala ere lan asko egin zuen: frantsesera ikasi hobeto, isilpean politika munduan jarraitu, Parisera bidaiatu...

Hainbat gaitan bipolarizazio bikoitzean mugitzen zen, hala nola: euskara, bere metodoa, bere feminismoa, bere abertzaletasuna, bere bizitzeko modua, adiskidetasuna...

Emakume abertzalea. Gerra aurretik hitzaldiak ematen zituen politikaz. Mundu honetan ere bere gogortasuna erakutsi zuen inongo erreparurik gabe.

Orixe ikastolan eman zituen azkeneko urteak jubilazioa hartzeko. Urte latzak izan ziren hauek. Osasun arazoekin hasi zen. Oso nahasia zebilen eta lankideekin arazo ugari zituen. Apenaz jaten zuen. Gauza berrien aurrean tristetu egiten zen. Azken urteetan oso petral ibili zen lankideekin, deprezioarekin, burua galduta. Usurbilen hainbatetan ingresatuta egon ondoren Donostiako hospitalean hil zen 1982ko abenduak 26an, 76 urterekin. E gündoko bakardadean iritxi zitzaion eriotza.

Bizkaiko Sollubeko Mañu auzoko kanposantuan dago lurperatuta. Etzuen nahi inork jakin zezan non hilobiratuko zuten baina berak eskaera eginga zion auzo honetako Gotzon Garitaonaindia izeneko parrokoari. Bakarrik egon nahi zuen

Laburbilduz, Elbira benetan zen nortasun sakonekoa, isila, bakartia, autoritaria, indartsua, koketa, lagun asko zituen bere sinismenekin bat zetozenak. Bere estiloa, lanekoa, oso irekia zen. Gizartearekin konprometitua. Xedea ikasleak bizitzarako hezitzea zen. Lagun gutxikoa nahiz eta beti jendez inguratuta egon bere harreman profesionalarengatik. Ehunetik ehuneko dedikazioa eskatzen zien bere lankideei. Konfidentziarako dohairik ez. Segurtasun handikoa. Harremanetarako pertsona zaila. Ez zuen nobio jakinik izan. Bere bizitza pertsonala ez zuen inorekin konpartitu. Berarengandik urruntzen zirenei esaten zien "etorriko dira, etorriko dira...".

Lagun intelektual ugari izan zituen: Koldo Mitxelena, Orixe, Joxe Migel Barandiaran, Resurrección Maria de Azkue, Faustina Carril.

Berarekin maistra karrera egin zutenak izan ziren lehenengoetako maistrak. Hauen artean: Maria Dolores Agirre, Julene Azpeitia, Elisabete Maiztegi, Maria Dolores Goia eta Katalina Elizegi.

2. ELBIRA ETA IRAKASKUNTZA

Francoren diktadura garai bete-betean Gipuzkoako lehen euskal-etxe-eskolaren historian protagonista dugu Elbira Zipitria. Eskola librea, moderna, euskalduna, europarra, berria... behar izatetik sortua. Garai hartako zela-halako hezkuntza sistema ilunean bere lekua egin zuen. Elbira Zipitriak beti egin zuen lana euskeraz irakasten zen tokietan. Euskal irakaskuntzaren alde borrokan aritu zen beti; ez bakarrik hizkuntzaz euskalduna, baita edukiaz eta formaz ere berezia izango zen irakaskuntza bat nahi zuen. Bestalde, abertzaletasunak eta erligioak pisu handia zuten haren sisteman.

Elbira Zipitriak 16 urterekin Sekundariako ikasketak hasi zituen. 1922ean lau urteko iraupena zuen "Maestra de primera Enseñanza" ikasketak egiteari ekin zion beken laguntzaz. Bere expedientean agertzen diren kalifikazioak bikainak dira. "Costura"n aldiz nahikotasun maila lortu zuen urtero. Elbirak ikasteko grina aparta erakutsi zuen etengabe; eredu bat izango litzateke gure gizarte honetarako.

Hala ere, Elbiraren gorentasuna expediente akademikotik baino bere intuizio eta lanerako erakutsi zuen grinagatik gehiago dator.

Elbira Zipitriak bere -berea zen metodoa aurkitzeko berea izan zen ibilbidea egin zuen: Teresianoan ikasia internadoan, Magisteritza Eskolan Diplomatu, asko irakurri bere kabuz eta bidai pedagógico ugari egiten omen zituen Europara, beste helburu batekin egindako bidaiak aprobetxatuz.

Bigarren Errepublika aldarrikatzeaz bat eraberritze bat etorri zen Hezkuntza sistemara eta haize fresko hau aprobetxatu zen euskal irakaskuntzaren sarrerarako.

1926an ikasketak amaitu eta Muñoatarren ikastolan lanean hasi zen, hain zuzen ere Donostiako Alde Zaharreko Juan de Bilbao kaleko egoitzan, lau-sei urte bitarteko ikasleekin. Gelan neskak eta mutilak zeuden nahastuta. Euskal-eskola honetan gauzak ondo egin beharra nabaritzen zen, guztientzat irekia zegoen, zeharo euskaraz erakusten zen, kristautasunak indar handia zuen eta pedagogia aldetik berritzailea zen guztiz eta Elbira haurrak inoiz heldu etzen etorkizunerako prestatzen aritu zen. Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, alde egin zuen Ipar Euskal Herrira eta eskola zapuztua egin zuten.

Gerra zibilaren ondoren 1943. urtean hasi zen Frankoren diktadurapean ezkutuko ikastola bat antolatzen ikasle bakar batekin hasieran. Azkenik, hiru urte beranduago, berea zen etxean, Donostiako Parte Zaharrean ireki zuen lehenengo euskal-etxe-eskola klandestinitatean eta honetan 25 urte iraun zuen. Urte guzti hauetan zehar burutu, asmatu, bilakatu zuen bere metodoa.

Donostiako Parte Zaharrean, Fermín Calbetón kaleko 26. zenbakian 2. solairuan, zeukan ikastola Elbirak, bere etxebizitzan hain zuzen ere. Gela iluna, baina Elbira umeeekin zegoenean beste goxotasun bat hartzen zuena. Ikastola guztiz klandestinoak zen. Etzuen izenik.

Eskola euskalduna izateaz gain, eskola berriak ziren pedagogiari begira. Eskola konfesionala zen baina Elbirak gorrotatzen zuen irakasten zen erligioa eta horregatik hemen ere erligioa beste modu baten erakutsi zuen: Kristau formazio modernoa zeukaten

1950-1960 urteetan hasi ziren beste etxe-ikastola batzuk zabaltzen. Donostiako gehienak Elbiraren bultzadaz jaio ziren sarritan eta irakasleak berak prestatuak ziren. Berea izan zen lehenengo ireki zen ikastola.

Hasiera hasieratik Elbira jolasen bidez erakutsiz hasten zen. Libururik gabe irakasten zuen; "Xabiartxo" liburua bakarrik zuen. Kutxatilan txotxak eta kanikak zituen matematika osoa lantzeko. Lurrean exerita egiten zuen lana.

Elbirak, betidanik ere, aniztasunaren trataera barneratuta zeukan. Beraz hezkuntza premia bereziekiko sentsibilitate handia erakutsi zuen. Egia-Careaga senideekin jarri zen harremanetan eta familia honetako Migel Mari Down sindromedun mutilari klaseak eman zizkion 25 urtetan egunean bi ordu mutilaren etxean. Elbirak, kultura orokorreko oinarri bat emateaz gain, euskara eta frantsesaren ezagupenean bideratu zuen Migel Mari. Hala eta guztiz ere lan nagusia gazteleraz egin zuen.

Hona hemen, erabiltzen zituen berariazko estrategia bereziak:

- Adibide desberdinak erabili gauza berbera azaltzeko
- Lerrodun bloka onartzen zion Migel Mariri.
- Berarekin lana egiterakoan oso kontutan hartzen zituen ikasle honen zaletasunak; hauen artean futbola.
- Migel Marirekin zeharo funtzionalak ziren edukiak lantzen zituen. Hots bizitzan automiaz baliatzeko bestekoak. Horregatik beti erabiltzen zituen materialak aukeratuagoak ziren.

1943-1946 bitartean etxez-etxe ibili zen andereño. Eskolak izkutuan ematen zituen klandestinitatean. Pixkanaka bizpahiru haurrez osatutako taldea, hamar haurretako bi taldetan bihurtu zen.

1946an bere ikastola izan zuen. Fermin Kalbetoneko 26 zenbakian zegoen. Bera bizi zen etxea zen. Zaharra zen, balkoia aurrera, salita bat oso txikia eta berak lo egiten zuen alkoba. Kutxa bat zeukan Aralarko Mikel Deunarekin, harbela salako atea zena eta zizailuzko mahai bat. Erabat originala. Egun osoa lanean ematen zuen. Hasieran bera bakarrik aritzen zen klaseak ematen.

Irakaskuntzarako materialaren urritasuna nabarmena zen. Xabiartxo zen aurkitu zitekeen liburu bakarra. Elbira egoera honekin etzen izutu. Ezagutu zuten guztiek jakinmin handiko emakumea bailitz deskribatzen zuten. European pedagogía arloan egiten ziren azken ikerketen berri edukitzeaz arduratzen zen eta Frantzia zuen ahizpa monjaren bidez Frantziako

Heziketa sakonki ezagutzen zuen. Guzti honen ondorioz, euskal-etxe-eskola, ikastola, irakaskuntzan irakasteko eta ikasteko modu berriaz jantzi zuen. Guztiz iraultzailea. 50. hamarkadan Espainian erabiltzen zen pedagogiarekin alderatzen badugu.

Etxean, bere lana etzen ordea haurretara mugatu. Hainbat andereño ere hurbildu baitzen Elbirarengana euskaraz irakasten ikasteko. Hauekin pedagogía biderik berrienak jarraitu zituen Elbira Zipitriak. Hori guztia gutxi balitz, euskerazko klaseak ematen zituen iluntzetan.

Elbira Zipitriak aurrera zeraman lana, ezagunagoa gertatzen ari zen egunez egun, euskal kulturarenganako kezka zuten senideen artean. Ikasle kopurua handitzen zihoan. Euskal Irakaskuntzarako andereño berriak bilatu behar izan zituen. Hemen hasten da Elbira Zipitriak gerraondoko ikastolaren mugimenduaren susperketan betetako lan garrantzitsua.

Hasiera batean ezagunak zituen Arzelustararengana jo zuen laguntza bila. 1949. urtean bere ikastolara euskera oso ondo menderatu gabe heltzen zitzaizkion hurrez arduratzeko. Hau egin ahal izateko berarekin praktikak egitea gomendatu zion metodo pedagogikoaz jabetu ondoren agindutako lana egiteko.

Ideologia hau zeukaten famili guztiek etzuten aukerarik euskal-etxe-eskolara joaterik, asko hasi baitzen kopurua eta irtenbidea gero eta beharrezkoagoa zen. Erabaki garrantzitsua hartu beharra zegoen, eta so guztiak Orixe ikastolaren sorrerari begira jarri ziren.

1963. urte honetarako jadanik ikastolen mugimendua oso zabaldua zegoen Gipuzkoako hainbat herritan. Hots, guzti hauen atzean Elbira Zipitriaren eragina zegoen.

1968. urtean lau andereño elkartu ziren Santa Maria Elizako gela batzuetan eskolak emateko: Elvira Zipitria, Mari Karmen Mitxelena, Maria Teresa Aleman eta Koro Aldanondo: Hauxe izan zen Orixe ikastolaren sorrera. Elbirak bere izena eman zuen titularra izateko eta besteek irakasle izateko. Elbirari ez zitzaion batere gustatzen legalizazioa, ikastola eta euskera galeran, kaltean, arriskuan ikusten zituelako.

Adierazi den bezala Elbira Zipitria Andereñoak 5-9 urtetako haurren heziketaz euskera soilean emateaz arduratzen zen, baina 8-9 urtetakoei gaztelerako eta frantseserako gramatika erakusten zien ondoren ondo egokitu zintezan hurrengo ikastetxeetara.

Lanerako bakartia zenez eta legalizazioaren ondorioz ondoren 1971an, 65 urte zituela Orixe ikastola utzi egin zuen Elbira Zipitriak. Bera da ikastolaren sustraia. Ez zen lankide erreza izan.

Ikastolak irekitzeari ekin nahi ziotenek Elbira Zipitriarengana joaten ziren ikastera.

1956ko irailaren 23tik 29ra Parisen egin zen Munduko Euskal Biltzarrean parte hartu zuen beste andereño batzuekin batera: Karmele Esnal, Mari Angeles Garai... Bertan erbestean zeuden erakundeak diasporako eta barruko ordezkari politiko sindikal eta kultural ugari bildu ziren Euskal Herriaren egoeraz hausnarketa egiteko.

Munduko Euskal Biltzarrak irakaskuntza arloari arreta berezia jarri zion. Han hitz egindakoak izan zuen eraginik han-hemenka erretzen ari zen kezkan: euskerazko irakaskuntza eratu beharra haurrentzat. Elbira aintzindari ikusten zuten guztiek eta bere lana hobeto ezagutzea erabaki zuten hantxe izan ziren hainbat andereñok.

Besteak beste hauek egin zituzten lehenengo praktikak Elbirarekin eta ondoren etxe-ikastolak zabaldu: Faustina Carril (1953), Karmele Esnal eta lone Forcada (1952-1953), Karmele Esnal (1957) Santo Tomas Lizeoko oinarria izango zena, Mari Karmen Mitxelena (1956). Horrela jarraitu zuen eta 1956-1968 bitartean Zipitria Andereñoak bere klaseak emateaz gain, euskal maestra gazteen prestakuntzaz arduratzen zen. Hona hemen berarekin ikasitako beste batzuk: Mari Karmen Lasarte, Kontxi Beitia, Arantxa Arrazola, Maritxu Mariezkurrena, Begoña Goia.

Elbiraren metodoa erabiltzeko ezinbestekotzat jotzen zuen urte beteko praktikak egitea berarekin. Hori egin gabe ez zegoen metodoa jasotzerik. Ondoren ikastola zabaldu zezaketen.

Metodoaren transmisioa ere honela egiten zuen: bat edo bi urtetan aritzen ziren andereño-gaiak praktikak egiten benetako irakasle izateko. Beti titulua eskuratu ondoren. "Soto vozze" zabaldua zegoen zurrumurrua partehartzeko praktika hauetan ezkongabea izan behar zela. Ikastaroak ematea ez zuen gogoko eta inoiz ez zuen eman ikastaro formalik eskaera ugari jaso arren.

Bere metodoa jasotzeko baldintza, bizitzea zen: ikusiz, entzunez, behatuz,... Honela ikasten zen metodoaren logika. Horregatik praktikan jendea banaka hartzen zuen eta maestra karrera egindakoak izan behar ziren. Lekukoek diote bere bitalitatea, erritmoa, jarraipena, konstantzia... oso zaila zela jarraitzeko. Guztiz ondo ez bazuten egiten ikasitakoa, atentzioa deitzen zien. Gauerarte izaten zen askotan azalpenak ematen. Berak ere hauen beharra zuen. Indartsua zen bere esanetan eta andereño-gaiak ez ziren ausartzen ezer esaten.

Elbira Zipitria bokazioz irakaslea izan zen eta senez guztiz eraberritzailea. Abertzaletasuna etzen oztopo izan berrikuntzarako eta heziketarako estrategiak ezagutzeko.

Elbirak bere metodoa bere euskal-etxe-eskolan sortu zuen eta han ere burutu eta jarraitu. Gero Orixe ikastolan egin zuena kopia bat besterik ez zen.

Haurrekin lanean hasi orduko finkatuta zuen bere helburu nagusia: haurrek euskara erabili eta ikas zezatela. Ikastolen sortzailea izan arren, ez zuen

inongo harrotasunik agertu. Elbirak lanean egindako ibilbideak bi zutabe izan zituen: euskera eta berrikuntza pedagogikoa.

XIX. mendearen azken urteetan eta XX. mendearen lehen zatian irakas-kuntzaren arloan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Espainiar hezkuntza sisteman zein euskaldunean Europako eta Amerikako pedagogi korrante handiak lantzen hasi ziren eta, zailtasun ugarirekin bazen ere, heziketaren konzeptualizazioan haiek aldarrikatzen zituzten aldaketak barneratzen hasi ziren.

Elbira Zipitriak Espainian, Katalunian eta atzerrian egindako bidaietatik bere bizitza profesionalerako baliagarri zitzaizkion ideia berritzaileak hartu zituen; mintegi, tertulia eta mitinetan parte hartuz eskola berriaren aldeko jarrera sortzen lagundu zuen, eta bere zeregin pedagogikoa eskolako ordu arteko ohiko praktikak deuseztatzen bideratu zuen, eskola modernizatzen eta euskalduntzeko helburuarekin: haren nahia zen euskal umeek ama hizkuntzan ikas zezaten, eta jakituria hizkuntza horretan lan zezaten.

1921ean “Hezkuntza Berriaren Elkarte” eratu zen. Mundu zabalean hedatu zen, eta bi edo hiru urtean behin konferentziak egiten saiatu ziren pedagogoez. 1920ko hamarkadan Elkartek hezkuntza aurrerakoiaren helburuak aldarrikatu zituen.

“Eskola berria” esan zitzaionak XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran ekin zion bideari. Bere planteamendu askotan, eskola hark printzipio iraultzaileak proposatu zituen: eskola tradizionalan ikasleek zeukaten pasibotasunaren ordez, aktibotasuna defenditu zuen; memorismoaren eta errepikapenaren aurrean metodo naturalak erabiltzea; irakasleen eta ikasleen rola eraldatzea: lehenengoak transmisore huts izatetik gidari, aholkulari, laguntzaile izatera pasatzea; irakaslea beste dizipulu bat balitz bezala izatea, beti ikasteko jarrerarekin, ohorezko aukitiki jaitzita, bere ahalegina umeen zerbitzutarako.

Elbirak, hastapen hauek jarraituz ikasgelarako eta heziketagaitzat ez zituen bakarrik liburu-takoz gauzak hartzen: beste edozein gertaera ere hartzen zuen: haserreak, ezbeharrak, ospakizunak, eriotzak, herriko gertaerak... Halaxe da: gai guztiak interdiziplinatzen zituen heziketari koherentzia eta esanguretasuna emanez, hizkuntza zuzena oinarritzat hartuz eta gai korapilatsuenak ere bide errezekin baina tinko erakutsiz eta azkenik bere papera, irakaslearena, eta ikasleena eraldatuz.

Gogoratuko dugu zein nolako sistema aurkitu zuen Elbirak gerra amaitu ondoren, Frantziatik Donostiara itzuli zenean.

Gerra amaitu zenean, erregimen garailearen fundazio etapa zen, eta printzipio ideologiko zaharmindu, nazionalista, kontserbadore eta totalitario-enak nagusitu ziren; beraz Espainiako Hezkuntza sistema gogortu eta uniformatu egin zen eta hildo horretatik zetozen lege eta araudi guztiak. Adibidez 1938.eko martxoak 5eko zirkularrak argitzen du ikastetxe-tako “La nueva Orientación pedagógica”:

- Aberriaren ideia ikasleei Espainiako Historia ulertzeko modu berri bat ezarriz transmititzen zen, joera kritikorik eta gaitasun analitikorik gabe.
- Ikasleak mugimenduaren ideiekin derrigor bat egiteko betebeharrean.
- Eskola frankistan gimnastikak ez zuen gorputzaren estimulazio fisikoa intelektualtasunaren osagarri gisa bilatzen, aitzitik, balio jakin batzuei buruzko prestakuntza sustatzen zuen, esanekotasunean, diziplinan eta ordenan oinarrituta.
- Praktika erlijiosoak eta aberriaren aldeko ariketak zirela eta, oinarrizko ikasgaietarako denbora gutxi geratzen zen.

Horrenbestez, ahalmen sortzailea ezereztan eta eskola-umeengan adimen kritikoa eta analitikoa eratzea galarazten zen. Garai hartan Espainian hezkuntzak kontrol dirigista zurrun eta zorrotza jasaten zuen, hezkuntzaren eta kulturaren arloan nazional-katolizismoa esaten zitzaiona.

Gerrarik izan ez bazen bezelaxe Elbiraren gelan ikasleek parte hartzen zuten. Halako Espainia hartan ikastola sortu zela sinisteak lanak ditu. Frankismoko urte gogorretan halako proiektu bat abiarazteko adorea eta irakaskuntzarako bokazioa behar zen, eta Elbirak bietatik zeukan soberan. "Ogibidea jarduna da, ofizioa, berriz, pasioa".

Elbirarentzat, irakaskuntza, aldi berean magia eta logika behar duen artea da. Gehienetan ikasleek bizi duten gertuko egoeratik abiatzen zen, haien interesa pizten zuelako beti. Ondoren, arreta bizituko duten ilustrazioekin atontzen zuen mintzaldia, zenbat eta harrigarriago, hobe. Horrela, logikari jarraituta prestatzen zuen eskolaren egitura: sarrera, garapena eta ondorioak. Gaiak elkarrekin lotzen saiatzen zen, kontzeptuak eta ideiak errepikatzen, Orixerenak bezalako paragrafo egokietara jotzen zuen, eta horietako abstrakzioei buruz gogoeta eginarazten zien ikasleei, iritzia emanarazten, eztabaidatzen, buruz ikasazten, testuen interpretazioarekin harremanetan jar zintezten.

Eskola berriaren egarri zirenek ez zuten gogoko bere umeak irakaskuntza katolikoaren printzipioen konfesionaltasunean aritzea, edota bi sexuek bereiz ikas zezaten. Eskola publikoaren urrutiko aurrekari horiekin (hainbat legetan irakaskuntzaren alorrean xedatutako kontsignak indarrean zeuden) eta alternatiba bakar gisa ikastetxe pribatua izanik... indartzeaz zeuden euskal-etxe-eskolak gaur eguneko ikastolen sorburu bihurtzen ziren.

Europar zeuden joera aurrerakoien berri bazuen, baina badirudi autodidakta izan zela batez ere pedagogia mamitzerakoan. Beraz ondoko ideietan oinarritu zen Elbira Zipitriaren metodoa:

- Hezkuntzaren ardatzak, haurren nortasunaren ezagupena eta bere eskubideen errespetua izan behar dira.
- Naturarekin bat eginda bizitzea kultura integralerako oinarri-oinarrizko faktorea da.

- Osasuna eta sasoi fisiko nahitaezko eta berezko baldintza dira edozein gaitasun intelektual bereganatzeko.
- Ordutegi mugatua, talde mugatuak, metodologia egokia etekin handia ateratzeko.
- Gizakiak morala duen heinean, haurraren hobekuntzari buruzko arduraren etengabea eta lehentasunezkoa du.
- Familiako diziplinaren balioa eskolako bizimoduaren oinarri.

Elbirak eskola bizia egiten zuen. Berak esaten zuen berarentzat garrantzi handia zuela ikastolan etxeko giroa jarraitzea. Orduan bere ikastola etxea zen. Are gehiago, bere etxean zegoenez aukera guztiak erabiltzen zituen etxeko gauzak eta lanak egiten ikasteko. Elbiraren eskola, bizia zen eta umeez gauzak ikusi eta bizi egiten zituzten. Inguruko egoerak ikasgai bihurtzen zituen.

Ikasketa prozesua globala eta aktiboa zen, oso. Gelan haurrak lurrean esertzen ziren, eta idazketa egin behar zutenerako zizeilu mahaia hormatik jeitxi eta zabaltzen zuten. Klasea etzen hemen bukatzen. Sarri ateratzen zen inguruak behatzera: azoka, mendiak, kaleak...

Ostegun arratsaldero ere, ikasleekin Urgulleko gaztelurantz igotzen zen. Paseatu eta aizea hartzeaz gain, ikastera joaten ziren. Bestalde, Donostiako azoka ere sarri bisitatzen zuten, irakaskuntzarako bitartekotzat hartzen baitzuten. Ekintza hauek, aurrez ongi programatu ondoren burutzen zituzten. Abestuz joan ohi ziren bidean. Bitartean haurrek gaztainak, oztoak, goroldioa, untza, loreak,... aurkitzen zuten guztia biltzen zuten. Gero eskolan haietaz baliatzen ziren azterketa eta experimentazioak burutzeko. Eskolaz kanpoko ekintza bat burutu eta gero ikastolan gaiari buruzko lantxo bat egiten zuten. Kontzeptuak eta gaiak barneratzeko behaketa ezinbestekoa zen Elbirarentzat. Buruz ikasitakoa gutxiegi gertatzen zen.

Jakintza zientifikoa eta teoria pedagogikoak eskolako praktikan erabili ahal izateko moldaketak egin eta natur zientzien irakaskuntza berri zuen.

Matematiketan ere aukeratutako bideak beti konkretutik abiatzen ziren gero abstratora pasatzeko. Horretarako erabiltzen zituen materialak: txotxak, kanikak, goxokiak, xaguak e.a. ziren eta kantuen eta jolasen bidez lantzen zituen.

Hizkuntzari garrantzi handia ematen zion. Bere ustez hizkuntzaren aberatasuna olerki eta abesti ederretan aurkitzen zen. Horregatik bere ikasleek 100 abesti baino gehiago zekizkiten. Kantak oso ondo aztertuak zituen eta lehenengo kurtsokoei abesti mota batzuk irakasten zizkien eta heldutxoagoei beste batzuk.

Elbira Zipitria, aize berriak mamitzerakoan autodidakta izan bazen ere, ekarpen handia egin zion irakaskuntza metodologiari. Inguruan sistema

gutziz atzeratuak eta autoritarioak erabiltzen zirenean, bera Europako joera modernoena erabiltzen saiatu zen. Batez ere matematiketan, hizkuntzetan eta esperientzietan.

Berrogeigarren hamarkadan gaude. Españan une honetan ez zegoen hasi-ta hezkuntza berritzatzeko mugimendu berritzailerik eta Elbirak

ideia horiek pedagogiako liburuetatik jaso zituen. Horrez gainera, Elbirak, jarduera horien bitartez, interes eta jakin-minezko jarrerak eta behaketa-rako eta esperimenezko zaletasuna sustatzen zituen. Jarrera horiek, errealitatearen azterketari eta horrekiko harremani dagokienez, zorrotasun progresiboa eskatzen zuten, eta ikasleak mentalitate zientifikora eta horren metodoetara gertura zitezen laguntzen zuten.

Gure ustez Elbira Zipitriak egindako lanak, hauxe eman dio ondorengo euskal-irakaskuntzari:

- Eskolak hizkuntzen erabilera bultzatzeko duen grina, metodologia berriak ikertzeko etengabeko ahalegina, gogoeta, ebaluazio tresna bezela erabiltzea hobekuntza bultzatzeko, eta zer-esanik ez erabilerari eman dion lehentasuna euskerak aurrera egingo badu.
- Aurrerago adierazi denez, eskola barruan hizkuntza ez izatea gai hutsa, irakaskuntza-ikaskuntza jardueren funtsezko euskarria baizik. Errealitate horrek transzendentzia bikoitza du: Alde batetik irakas-le guztiak, lantzen dituzten arloak direnak direla ere, azken batean hizkuntzako irakasleak dira, momentu oro erabilera eredu jakin batzuk erabiltzen dituztelako eta, ondorioz, ikaslea horren eragin-pean dagoenez, eragina daukatelako. Gaur egun irakasleak hizkuntz eredu eta eredu soziolinguistikoa den heinean betetzen duen rola oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen hizkuntz normalkuntzarako elementu eragile bilakatu delako.
- Gainera hizkuntza eskolako jardueraren euskarria denez gero, erabilera hobetu ahala ikasleak aurrera egingo du errealitatearen erreprezentazioen prozesuetan, pentsamendu abstraktu gero eta konplexuagoaren garapenean eta norbere ezagutzaren eraikuntzan. Gelan erabilitako bloketan argi eta garbi ikusten da eraikuntza hau aurrera eramateko jarraitzen zuten bidea: batez ere matematiketan egindako ariketak jar-duerak eta ekintzak.
- Beste alde batetik, ikasleak hizkuntzaren bitartez erakutsi beharko du bere ikaskuntzan aurrera egiten ari dela, ahozko zein idatzizko testue-tan islatuta agertzen dena (lanak, fitxak, eztabaidak, azterketak, aur-kezpenak...) eta, ondorioz, garbi ulertzen da hizkuntza menderatzeak -1H edo 2H izan- ezagutzarako eskolan arrakasta izatearekin edo porrot egitearekin daukan erlazioa. Hau ere Elbirak erakutsi zigan.
- Azkenik, hizkuntzen ikasketa eskolan amaitzen ez den bezala, ikasketa horren onura ere ez dagokio bakarrik eskolari, hizkuntzaren garapena

pertsonaren garapenari oso lotuta baitago, bere pentsamendu abstraktuaren garapenari, gizarte talde batean integratzeari, bere sentimenduen eta emozioen adierazpenari, etab., eta prozesu horiek guztiak ez dira eskolako etapa amaitzean eteten, eta ez dira soilik ikasgeletan garatzen.

Elbirak talde eta ume bakoitzaren ezaugarriak hartzen zituen kontuan, eta estrategiak eta baliabideak bakoitzaren arabera moldatzen zituen eta behar zituen bitartekoak erabiltzen. Hain zuzen ere, horrela jokatu zuen Migel Mari Egiarekin (Down sindromeduna) eta beste ikasle guztiekin. Bakoitzarengan bere berezitasuna ikusten zuelako. Elkar onartzeko eta elkarri laguntzeko giroa sortzen zuen. Horrenbestez, lan taldeak eratzen zituen eta, bakoitzaren gaitasunen arabera, zereginak eta ardurak banatzen zituen. Horrela taldearen kontzientzia suspertzea ere lortzen zuen. Hasierako ikastoletan aritu ziren ikasleek eutsi egin diete harreman sendoei.

Arloak lantzeko proposatzen zituen ekintzak, berak zituen hastapen pedagogikoetan oinarrituta daude. Horregatik dira globalak, manipulatioak, biziak, arinak, entrenigarriak (edozein gairi sarrera ematen zion abesti batekin), buruz ez ikasteko modukoak, esperientzien bidez baizik eta horren arabera zeukan gelata antolatuta.

Hizkuntzaren gaitasunik handienak etengabe lantzen zituen arlo guztietako ekintzen bidez: ahozko hizkuntza, idatzia eta irakurmena.

Hiztegia mimikaz, doinuz, gorputzaren mugimenduz eta abarren bidez lantzen aparta zen. Gai guztiak lantzen zituen olerkarien ahokorapilo, bertso, kanta eta poemekin.

Bere gelako liburutegian Oxobi, Lizardi, Iratzeder eta batez ere asko maite zuen Orixeren liburuak agertzen dira: oso erabiliak, orriak gastatuta eta ez argitalpenaren kalitateagatik, jasandako igurtziengatik baizik.

Elbira Zipitriak zeukan arazoetako bat eskola aurrerakoi eta euskaldunaren bila zebiltzan eta kuota garestiak ordaintzeko prest zeuden gurasoak aurkitzea zen. Euskal Herriko lehendabiziko eskola aurrerakoiak oso talde txiki batenganaino iritsi ziren: guraso abangoardista eta dirudun samarren eta euskal kultura eta ama hizkuntzarekin konprometituak zeudenen seme-alabenganaino. Halaxe da, hein handi batean, euskarazko hezkuntzaren historia tradizio kontserbadorearen aurrean aurkeztu den berrikuntza sortzailearen erregistroa da, eta ikuspegi horretatik interpretatu behar da ikastolen sorrera.

Ikastola loratu egin zen, eta oso kontraste harrigarria eskaintzen zuen eskola preparatorio eta pribatuen aldamenean, agintaritzako kode hierarkikoz hornituta eta ikasketa plan eta pedagogia tradizioaletara guztiz lerratuta.

Zeuden eskola berritzaile bakanak aurrerakoiak ziren, banakako ikasketarekin batera jarduera praktikoa handia egin beharra nabarmentzen zutelako, hala nola dendetan lan eginez, edota irteerak, liburutegia eta laborategiko

ikasgaiak garatuz, irakasleen zeregina haur bakoitzaren heziketa psikologia zaintzea eta sustatzea zelarik. Ikasleei eskolako langileekin eskolako prozedurei buruz eztabaidatzeko aukera ematen zitzaien eta, maila batean bederen, ikastetxearen gobernuan parte hartzeko aukera ere bazuten. Eta zentzu zabal batean horrela jarraitzen dute.

- Irakasleentzat zaila. Etengabeko prestakuntza eta formakuntza eskatzen du.
- Eguneratuta egotea eskatzen du.
- Eguroko prestakuntza alde zurretik.
- Adi egotea. Irakasleen ezaugarriak, giroa.
- Euskara maila aberatsa.
- Hiru hizkuntzak ikasteko eta menperatzeko balditza: talde txikietan. Gaztelera, euskera eta frantsesa lantzen zituen.

Banakako atentzioak eragin handia izan dezake heziketaren arloan eta, aldi berean, zeregin pedagogikoa konplexuago eta zailago bihurtzen du.

4. ELBIRA ETA EUSKARA

Trabajos de la Academia Vasca boletenean rafi-rafe airosoak izan zituen Antonio Tovarrek. Bere desadostasunak ziurtasun osoz azaldu zizkion eta honen erantzuna ordea, emakumea zenez desprestijiatzekoa izan zen. Gai honetan eta horrelako sakontasunez sartzen zen emakume bakarra baitzen. Tovarrek argitaratu zuen liburuan: “La lengua vasca” 56. orrian esaten duenean “*La complicación del verbo vasco es tan grande que la lengua ha tendido a solucionar una situación caótica*”. Eta 65. orrian hauxe dio:

“El edificio del verbo vasco puede analizarse pero solo trabajosamente y la fonética de los dialectos, aun insuficientemente estudiada no nos permite reconstruir con seguridad todas las formas que serían necesarias para explicar su funcionamiento”.

Elbirak, Antonio Tovarri erantzun zion artikuluko baten bidez Euskaltzaindiaren boletinean argitaratu zuena.

Jatorrizko euskeraren aberastasuna ezinbestekotzat jotzen zuen, horregatik bizitzako egoera guztietatik euskalkiko hitzak, atzotitzak, ahoskera diferentak... ateratzen zituen, gero bere ikasleei aldaera guztiak erakusteko. Honela, Pilar Barandiaranekin oporraldi asko igarotzen zituen, Lazkaon eta Aralarren hika berbetan ikasiaz. Pilar Donostian Elbirak zuen ikasgelara behin baino gehiagotan joan zen, haurrek euren lanetan zeuden bitartean hika berbetan ikas zezaten. On Jose Migelekin ere egonaldi luzeak egin zituen. Askok ikasten omen zuen. Zer esanik ez, Orixerekin.

Elbira Zipitriak euskal adituen iturritik edan zuen: Orixe, Barandiaran, Azkue, Mugika... Euskera mailan sortzen zitzaizkion zalantzak argitzeko Nemesio Etxaniz eta Manuel Lekuonarengana jotzen zuen. Etabaida luzeak izaten zituen.

Aurrerakada handia izan zen euskal aditza irakasteko, erdal terminologia erabili ordez, euskal terminologia erabiltzea eta laguntza emateko NOR, NORI eta NORK sistema asmatu zuen eta sistematizazioa lortu zuen hainbeste aldiz antzestu zuen gurpilaren bidez. Elbiraren ikaslea Antxon Valverderen aitak gurpila tersna bihurtu zuen.

Gurpillak traszendentzia handia izan du euskeraren hedapenean, asko errezku baitu aditzaren apendizaiia. Lazkaoko Beneditarrek asko gorai patzen dute Elbirarekin egindako ikastaroak batezere aditzaren inguruan egindako ikerketa. Harrez gero Lazkaoko Beneditarrak bihurtu ziren euskera garatzeko gune garrantzitsu. Esan beharra dago Elbirak, Lazkaoko beneditarrei euskerako klaseak eman zizkiela bi urtetako jai egun guztietan. Bi ordu goizez eta beste bi arratsaldez. Horrela bihurtu izan da Lazkao, euskera ikasteko guneen muin.

Elbira euskara batuaren kontrakoa zen. Herrietan euskara batuaren aldeko mogimendua hasi zenean, Elbirak "poxpolin" lana egin nahi zuen: kantatu, dantzatu... ilunabarrean sorginen antzera, lana amaitu ondoren eta jende adoretuaren artean. Hauxe zihoen: *"Izpirituak bizitza dakar, letrak hil egiten du"*.

Elbira Zipitria zeharo murgilduta zegoen euskeraren ezagutzan eta eguneroko irakasle lanaz gain erakustaldiak ere antolatzen zituen. Adibidez, 1932an ikasleek euskeran lortutako aurrerapenak erakutsiko zituen erakustaldia antolatu zuen jendaurrean eta beronen berri jaso zuten garaiko egunkariek.

Euskeraren irakaskuntza debekatu zenean, euskeraren gaian buru-belarri murgilduta zeudenek, Elbira beraietako bat, arazo politiko eta pertsonalak jasan zituzten. Eskola Ofizialetakoak desterratuak izan ziren Espainako herrietara. Adibidez Julene Azeitia Burgosera

Euskera Batuaren nagusitasunak ondoeza ekarri zion, ikastolaren legalizazioa, honekin lotzen baitzuen. "H"aren erabilera arauak bizia kendu zioten. Arauak ez zituen onartu. Are gehiago, eskritura razionala aldarrikatzen zuen eta euskara literarioaren beharrik ez zuen ikusten.

Elbira Zipitriak bazekien euskarak konpentsaziozko tratamendua eta orekatzailea behar zuela, baina ez zela izango batuatik etor zintekeena egoera diglosikoa arintzen laguntzeko.

Gaueskolak ere ematen zituen. Ahalegin guztiak egiten zituen batuaren eragina ez aldarrikatzeko eta bere ikasleen gurasoen artean saiatu zen iritzi hau sorrarazten: Kutxako langileei, Antton Valverderi, Karlos Santamariari, K. Zumalaberi... guztiak pertsona helduak, jakintsuak eta euskal kulturarekin konprometituak.

5. ELBIRA ETA POLITIKA

Irakaskuntza lanei arreta jartzeaz gain, Elbirak politikari eman zion bizitzako zati handi bat. Politika bideratzeko Emakume Abertzaleen Batzarren bidez egin zuen. Elkarte hau Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan sortu zen 1921ean eta lehenengo etapa, Primo de Riberaren diktadurapean desegin zen. Desagertu zenetik berriro berpiztu arte (1932) emakumeen dedikazioa euskera irakasteko laguntza emateko eta kultur ekintzak antolatzeke izan zen eta ez politikan aktiboki lana egiteko. Elkarte hauen barnean ere Elbiraren izakera indartsua eta gartsua nabaria da.

Elkarte hauen helburua emakumea ere politikan gizonekin batera aritzea zen. Ekintza asko egiten zituzten: euskara landu, elkarri irakatsi, ongizate ekintzak, abertzaleen ospakizun eta agerraldietan parte hartu, gizarte arazoetan lagundu, hitzaldiak eratu eta eman, tradizio eta ohiturei eutsi, emakumeen eskubideen alde borrokatu (1932an emakumeei botoa emateko eskubidea onartu zitzaizen borroka tinkoa mantendu eta gero), mitinetan parte hartu... Ekintzen iragarkietan Elbira agertzen zen hizlari gisa. Esate baterako, Urumea frontoian 25.000 pertsonak parte hartu zuten Emakume Abertzaleen Batzaren berrargitaratzean eta bertan hizlariak Elbira Zipitria, Mercedes de Careaga eta Jose Antonio Agirre ziren.

Gainera Elbirak idazkari lanak egin zituen Emakume Abertzaleen Batzako aldizkarian. Hizlari bikaina zen. Irakasle dexente aritzen zen mitinak ematen. Euron helburua hauxe zen: emakumeen identitatea etengabe baieztatzea eta politikan egotea meritu propioz eta ez gizonezkoen esanetara ezbaiztuten uste politika, hauena bakarrik zenik.

Mitinetan ahoz adierazteaz gain bere iritzia, garaiko egunkarietan adierazten zituen. Batezere “El día” egunkarian euskaraz idatziz eta “IRA” sinatuz.

Gerra ondoren politika aktiboa utzi egin zuen, nolabait antzeman ere euskaldunon arteko apurketa. Muturreko iritzia eta ekintzak agertzen hasi ziren eta berarekin aritutako haurrak –orain helduak– eszenario horretan ikustea onar ezina izan zen beretzat eta gogor jo zuen kontra. Bakarrik geratu zen.

Garai honetan politika elkarteez gain, kultur elkarteak ere bazeuden eta Elbirak biziki parte hartzen zuen. Besteak beste Euskal Idazleen Federakuntzako bileretan parte hartzen zuen eta era berean “Euskaltzaleak” elkartean. Baita 1931n Gipuzkoako irakaskuntzako Maixu-Maistra Kooperatzaileen Elkartea sortu zen eta berehala 300 bazkide egin zituen eta berauen artean Elbira Zipitria daukagu ere.